

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
3 positibo berri	1.619 hildakoak EAEn	5.482 positibo guztira	1 ospitalizatuta
21.216 positibo guztira*	6 UCIn EAEn	528 hildako	
*Hernanin 67 Astigarragan 23		Sendatuak EAEn: 4.342; Naf: 9.557	

Zorroztu egin dira Astigarragako igerilekuaren funtzionamendu neurriak, «arauak ez direlako bete»

Pasa den asteazkenean ireki zituen berriro ere ateak, Astigarragako igerilekuak, funtzionamendu neurriekin. Hala ere, neurri eta baldintza hauek zorroztu egin dituzte, «hainbat arau ez direlako bete».

ASTIGARRAGA UDALA

Uztailaren leian ireki zuten berriro Astigarragako igerilekua, segurtasun eta funtzionamendu neurriekin. Hala ere, Udalak jakinarazi du hainbat arau ez direla bete, izan ere, lurzati familiarrak, «bizikidetzaren unitatekoak diren pertsonen erabili dezakete, eta zenbaitek ez dute hau bete». Hori kontutan hartuz, neurriak gogortu egin dira, eta familia lurzati bat erreserbatzen dutenek, «familia liburua edo bizikidetzaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute».

Gainontzean, funtzionamendurako hainbat neurri ezarri dituzte. Lehenik azaldu dute, igerilekura joan aurretik lurzati bat erreserbatzeko hitzordua eskatu behar dela *Astigarraga.eus* webgunean, eta lurzatiaren erreserbak, «3 orduko iraupena izango dute». Bi motatako

erreserbak daude; alde batetik, erreserba indibidualak, hau da, pertsona bakar batek hartu dezake lurzati; eta beste aldetik, erreserba familiarra, «bazkide-tza unitateentzat soilik, 2 eta 5 pertsona artean. Familia liburua edo bizikidetzaren ziurtagiria erakutsi beharko dute». Gainera bizikidetzaren ziurtagiria eskatzeko izapidea, aurrez aurre egiten da udaletxeko erregistroan.

Igerilekuaren edukiera mugatuko da, «igerileku txikian soilik 4 urte bitarteko haurrek egon ahal izango dute», eta 5 eta 8 urte bitartekoak berriz, haundian, «heldu batekin». Igerileku txikian, 12 pertsona sartuko dira gehienez, eta haundian berriz 93.

Jakinarazi dute, igerilekuaren edukiera gainditzera badoa, «erabiltzaile bakoitzaren bonua, 15 minutukoa izango dela aldi bakoitzean». **K**



Erreserba familiarra eginez, familia liburua edo bizikidetzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Argazkia: Astigarragako Udala.

Ave Maria parkearen «aldi baterako itxiera» eskatzen du, Hernaniko Alderdi Jeltzaleak «kutsaduragatik»

Hernaniko EAJk, Ave Maria parkearen «aldi baterako itxiera» eskatu du, «artseniko eta plomoak eragindako kutsadura maila, baimendutakoaren gainetik dagoelako, eta haur eta gazte ugari ibiltzen direlako bertan».

HERNANI PRENTSA OHARRA

Ekainaren 30ean egin zen Osoko Bilkuran, EAJk, Ave Maria par-

kearen gaia atera zuen mahai gainera, honek «aldi baterako itxiera» eskatuz. Hainbat txostenetan oinarritu zen Andoni

Amonarraiz EAJko bozeramailea, eta azaldu zuen, «Ave Maria Parkean, artseniko eta plomoak eragindako kutsadura maila, baimendutakoaren gainetik daudela», eta horrek dakartzan arazoak azaldu zituen, «haur eta nerabe askok pasatzen dute denbora Ave Marian, eta egoera arriskutsu batean dago parkea». Gainera, 2018an egindako txostenetan azaltzen du «eremu batzuetan, artseniko eta plomoak

eragindako kutsadura haundia goa dela. Eta proposatzen da, 0,5 metroko buztinarekin estaltzea, eremu hori».

Hildo beretik, EAJ arriturik dago, «oraindik ez direlako arazoak ekiditeko neurriak hartu. Gainera, haur txiki zein nerabeak joaten dira parkera, eta berriro diot, arriskua dagoela» Alderdi Jeltzaleak, azaltzen du, ez duela ulertzen, EH Bilduren jarrera, «norbit eroriz gero, ku-

tsatuta dagoen lurrean zauri bat egin dezake, eta EH Bildu arriskatzen ari da».

Hori horrela, Amonarraizek, Ave Maria parkearen «itxiera» eskatu du, «Eusko Jaurlaritzak zer egin behar den azaldu arte behintzat». **K**

«Norbit eroriz gero kutsatutako lurrean, zauri bat egin dezake»

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Beilatokiak
* Eskelak, korroak...

ORBEGOZOZ
FUNERARIO - BEILATOKIA

Allianz

ASEGURUAK

- bitria
- lurrik
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- ardura zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

DORRONSORO
OHINDEGIA

Ogi egin berria beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jailegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jailegunetan: 7:00-14:00

GAUR Gaur zerua lainotuta azalduko da ipar partean. Fronte batek euria ekarriko du eta Iparraldeko haizea bizitu egingo da. Tenperaturak jaitsi egingo dira. **Min.17° / Max.19°**

BIHAR Fronteak alde egitean berehala hobera egingo du asteartean. Goizean bereziki ipar partean agertuko diren hodeiak desagertuz joango dira. Eguneko tenperaturak gora egingo du. **Min.13°/Max.21°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarra Udalak

Donostia Udalak

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Castilla** Urbietako, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL LEGIARTEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

ELKARTEA

Zikuñagako Torneoko partiduak jokatu dira, asteburuan ere

ESKU PELOTAKO partiduak jokatu ziren aurreko astean, Zikuñagako Torneokoak batzuk eta Hernaniko Txapelketakoak besteak. Aste osoko emaitza gutiak 'Kronika.eus'en daude ikusgai.

HERNANI ESKU PELOTA

Makina bat esku pelota partidu jokatu dira aurreko astean zehar, aipatu moduan, Zikuñagako Torneokoak batzuk, Hernaniko Txapelketakoak besteak. Asteburuan, goizez eta arratsaldean izan dira partiduak. Honakoak izan dira goizeko emaitzak: Infantilak, Enaitz Artolak 18 eta 5 eko garaipena lortu zuen Jon Urrutiaren aurka; Kadeteak, Labaka eta Odriozolak ere garaipena lortu zuten, 18 eta 14 geldituz, Zapirain eta Sorondoren aurka. Jubenilak; Mitxelena eta Iriartek 18 eta 16 Otaegi eta Goikoetxea aurkari izanik. Negusietan berriz, Eskudero eta

Labakak irabazi zuten, Gurtzalde eta Santxezen aurka, 18 eta 14 geldituz.

Arratsaldean ere lau partidu jokatu ziren. Alebinetan, Ziganda eta Osesek irabazi zuten 18 eta 4 I.Alberdi eta Arretxeren

aurka. Kadeteetan, Manterola eta Urdanpilletak 18 eta 4 egin zuten, Arabaolaza eta Martin aurkari edukiz. Jubeniletan, Perurena eta Alonsok, Naldaiz eta Kañamaren aurka, 18 eta 3 irabazi zuten. Azkenik, nagusietan, Ugalde eta Etxeberriak lortu zuten garaipena, 18 eta 12 geldituz, Chiapuso eta Aranbururen aurka.

Aurreko asteko partiduen emaitzak, eta datozen egunetako partiduak: *Kronika.eus*-en. **K**



Alebinak, 18 eta 4 egin zuten, larunbatean jokaturako partiduak.

Hirugarren postuan doa Donostiarra 19 punturekin, Eusko Label Ligan

Asteburu honetan A Coruñan izan dira Eusko Label Ligako bi estropada, eta Donostiarrak, hirugarren postuari eutsi dio, 19 punturekin.

URUMEA ARRAUNA

Pasa den larunbatean eman zitzaion hasiera Eusko Label Ligari, eta lehenengo estropadak A

Coruñan izan dira. Donostiarra traineruan, gainera Hernaniko hiru kidek hartzen dute parte; Jon Iruretagoiena patroia eta bi arraunlari, bat Xabat Pastor eta

bestea berriz, Iban Verdugo. Hirugarren postua lortu dute asteburu honetan.

Lehenengo postuan Orío doa 21 punturekin, eta bigarren Santurtzi, puntu berdinekin.

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan Donostian dute zita arraunlariek, eta CaixaBanki dagokion bandera jokaturako dute bertan. **K**



Eli Pagola bertsotan, eta atzean, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio.

Hamaika doinurekin hasi zen, Ereñotzuko Uda Kulturala

EREÑOTZU UDA KULTURALA Pasa den ostegunean, Eli Pagola, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Unai Iturriagak

eman zioten hasiera, Ereñotzuko Uda Kulturalari. Bertsolarien erritmo eta doinuekin, giro paregabekoa egin zen Ereñotzuko

frontoian. Eta ostiralean ere, Naizek antolatutako En Tol Sarmiento taldearen kontzertua eskaini zen.

Atzo argitaratutako Jose Mari Alberdi Echaveren eskertzak, akatsa argazkian

OKERRAK ZUZEN

Atzoko Kronikan, Jose Mari Alberdi Echaveren eskertzan, argazki okerra jarri zen, ez baitzen Jose Mari Alberdi argazkikoa. Hori horrela, barkamena familiari eta minduta sentitu diren guzti haiei.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOSE M^a AGUINAGA ARANGUREN

Uztailaren 4an hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren

- Goian bego -

Zure arrebak eta Aginagatar ilobak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **SEI TERDIETAN, Martuteneko INMACULADA CONCEPCION** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko uztailaren 6an

† XATUR ORTIZ SAGARNA

(Pablo Villalbaren alarguna).

Herenegun hil zen Hernanin, 90 urte zituela

- Goian bego -

Seme-alabak: Mari Patxi eta Jose Ramon, Peio eta Susana, Mari Jose eta Pepelu, Marian, Ixiar eta Etxebe, Axier eta Miriam; bilobak: Hayet, Araitz, Laura, Iñigo, Leire, Ainhoa, Oihana; birloba: Kenay; Karol eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTELEHENA** arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAILATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko uztailaren 6an

† XATUR ORTIZ SAGARNA

Xatur, zure alaitasuna beti gure artean egongo da

PELLOREN LAGUNAK. TILOSETAKO ZURE KOADRILA

Hernanin, 2020ko uztailaren 6an

ESKERTZA JOSE MARI ALBERDI ECHAVE

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Jose Mariren emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiak eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiak ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko uztailaren 6an

IRAGARKI MERKEAK

Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**

Etxebizitza alokairuan. Deitu 619 81 33 57

LOGIKALINE enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidalai c.v.** **rrhh@logikaline.com** edo deitu **943318606**.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**